



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Laudioko Udal Igerilekuko langileak pairatzen ari diren lan baldintzak salatu ditu LABek

LAB sindikatutik, Laudioko Udal Igerilekuak kudeatzen dituen azpikontratako langileak bizitzen ari diren lan baldintzak salatu nahi ditugu.

Badira 5 urte bertako langileek igerilekuetako sarrerako leihatilan kontzentratzen diren tenperaturek sortutako lan baldintzen arazoak salatu dituztela. Egoera honen aurrean, Laudioko Udalak, kirol instalazioen arduradunak, ez du inolako neurririk hartu baldintza hauek hobetzeko eta, horren ondorioz, langileek euren lana gauzatzeko behar dituzten lan baldintza duinak bermatzeko.

Igerilekuetako sarrerako leihatilak ez du aire giroturik; aldiz, barruan dagoen bigarren leihatilak, bai. Azken egunetan erregistratutako tenperatura altuak kontuan hartuta, baldintza hauetan, langileek osasun intzidentziak jasan dituzte.

Udal zerbitzuen azpikontratazioak egoera hauek ematea dakar. Eta Laudioko Udala, instalazioen arduraduna, ez da ezer egiten ari udal zerbitzu bat ematen duten langileen egoeraren aurrean.

Horregatik, Udalari exijitzen diogu, kirol instalazioak egokitu ditzan langileek segurtasun osoz lan egin dezaten. Ezin dugu ulertu nola irtenbide hain erraza duen zerbait ez den hainbeste denboran zehar konpondu, hau da, aire girotuaren instalazioa.

Laudion, 2022ko uztailaren 22an